

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honetako ikaslearen orriak aldizkari txiki baten formatuan dituzu. Aldizkari-itxura eman nahi badiozu, kopiak DIN A3 tamainan atera ditzakezu, eta erditik tolestu, ondoko irudietan bezala.

AZALA ETA KONTRAZALA

04 Denbora-pasak

PERTSONAL EKUTIA
Nola sa nekazak egin?

LAU BERTZ
Ondeko sarrerik KORRIKA sartze berrak? Eza Fermin MUGURUZA berrak?

21 KORRIKA kantak azaltzen dituzten pertsonak:

1. KORRIKAREN BERTZAK handia den du.
2. BERTZAKEN...
3. BERTZAKEN...
4. BERTZAKEN...
5. BERTZAKEN...
6. BERTZAKEN...

21 KORRIKA kantak azaltzen dituzten pertsonak:

1. KORRIKAREN BERTZAK handia den du.
2. BERTZAKEN...
3. BERTZAKEN...
4. BERTZAKEN...
5. BERTZAKEN...
6. BERTZAKEN...

KORRIKA bakoitzak bere kanta du. Kanta horiek euskal musikari ezagun askok egin dituzte: Mikel Laboaik, Izarok, Ruper Ordoñak, Aitika Iribanok, Miko Etxartek, Maizak eta beste askok. Gero, Beldu-garrik... 21. KORRIKAREN kanta **KLIKA KORRIKA du izena, eta Fermin MUGURUZAk egin du. Berrak, Mad Mussel eta La Furia musikariek abesten dute.**

BARNEKO ORRIALDEAK

02 21. korrika

GAURKO GAIA KORRIKA KANTA 03

21. KORRIKA kantak azaltzen dituzten pertsonak:

1. KORRIKAREN BERTZAK handia den du.
2. BERTZAKEN...
3. BERTZAKEN...
4. BERTZAKEN...
5. BERTZAKEN...
6. BERTZAKEN...

KLIKA KORRIKA kantak azaltzen dituzten pertsonak:

1. KORRIKAREN BERTZAK handia den du.
2. BERTZAKEN...
3. BERTZAKEN...
4. BERTZAKEN...
5. BERTZAKEN...
6. BERTZAKEN...

KLIKA KORRIKA kantak azaltzen dituzten pertsonak:

1. KORRIKAREN BERTZAK handia den du.
2. BERTZAKEN...
3. BERTZAKEN...
4. BERTZAKEN...
5. BERTZAKEN...
6. BERTZAKEN...

"KLIKA KORRIKA, 2019" A2

HELBURUA

Ataza honen helburua da KORRIKA kanta ezagutaraztea. Horretarako, aurreko KORRIKA kantak gogora ekarriko ditugu, 21. KORRIKAREN kantaren egileen biografiak irakurriko ditugu, eta, bideo kliparen laguntzaz, kanta ezagutuko dugu.

PROZEDURA

A. AURREKO KORRIKA KANTAK

- Gaian sartzeko, ikasleei aurreko KORRIKA kantak gogoratzen dituzten galdetuko diegu, eta gogoratzen dutenez mintzatuko gara, labur.
- "KORRIKA kantak" bideoa ikusiko dugu, birritan. Lehenengo aldiz, ikasle bakoitzak kanten arteko gustukoena aukeratu du; bigarren aldiz, nahi izanez gero, aukeratu kantei buruzko oharrak hartuko dituzte.
- Ikasleek, bakarka, KORRIKA kantarik onenak aurkeztuko dituzte; zergatik hautatu dituzten esango dute, KORRIKA horietaz zer dakiten...

OHARRA: lehenengo KORRIKAK egin zirenean, ez zen izaten kanta ofizialik, 8. KORRIKARA arte, gutxi gorabehera. Ordura arte, hainbat kantu egin ziren KORRIKA girotzeko (*Egan, Akelarre, Oskorri* eta beste talde batzuek), baina ez ziren KORRIKA zehatz batenak. Bideoa luzeegia izan ez dadin, zazpi KORRIKA kanta aukeratu ditugu.

B. 21. KORRIKAREN KANTA

- 21. KORRIKAREN kantaren bideo klipa ikusiko dugu. Ondoren, hasieran taldetxotan eta gero denok elkarrekin, kantari buruz mintzatuko gara, labur.

B.1. KORRIKA kanten egileen biografiak.

- Aldizkaritxoak banatuko dizkiegu ikasleei, 1. eta 2. orrialdeko testuak irakurriko dituzte, eta, binaka, bigarren orrialdean proposatzen zaizkien bi ariketak egingo dituzte. Ariketak talde handian zuzenduko ditugu.

ERANTZUNAK:

Hiru gezurrak: 1. Ferminen ez zuen *La Oreja De Van Gogh* taldearekin abestu; 2. *Mad Muasel* ez da gipuzkoarra, Erandiokoa baizik; 3. *La Furia* ez zen 1918an jaio.

Hitz egokiak aukeratu: 1. Muguruzarena (egia); 2. Nafarroakoak (gezurra); 3. hiru kantari (egia); 4. Mikel Laboak (gezurra, 13. KORRIKAren egin zuen, Ruper Ordorikarekin batera); 5. dituzte (gezurra, 21. KORRIKAren idatzi dituzte); 6. egin du (gezurra, *Bumclap Teacher* ez da filma, diskoa baizik); 7. ez da Tuterakoa (egia, Cascantekoa da).

B.2. KLIKA KORRIKA 2019 kanta

- Ikasleek, binaka, eskaintzen zaizkien itzulpenen euskarazko ordainak bilatuko dituzte kantan. Errazago egin dezaten, hitz horiek izartxo daramate ondoan (3. or.).

ERANTZUNAK:

1. Bat egitea : unir(se); *s'unir*

2. ... gabe: sin ...; *sans ...*

3. Sendoa: fuerte; *fort,-e*

4. Arnasa: aliento; *haleine*

5. Oreka: equilibrio; *équilibre*

6. Zirika: provocando; *en incitant*

7. Zatitu: dividir(se); *(se) partager*

8. Banaka: a solas; *individuellement*

9. Ahotso: voz; *voix*

10. Nortasuna: personalidad; *personnalité*

11. Oinarri: base; *base*

12. Giroa: ambiente; *ambiance*

13. Piztuta: encendido,-a; *allumé,-e*

- Kantaren hitzak ikasten saiatzeko, "KORRIKAren kanta osatzen" jokoa egingo dugu. Prozedura 3. orrialdean dago. Ikasleek kanta ulertzea nahi badugu, A1 mailako irakaslearen orrietan azaltzen den "Estrofen itzulpenak osatu" ariketa egin dezakegu.

C. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak eskolatik kanpo egiteko proposatuko diegu ikaskeei: epe bat jarriko dugu, eta, nahi duten bidea erabiliz (Interneten nabigatu, lagunei galdetu...) erantzun zuzenak aurkitzen saiatuko dira (4. or.). Behin epea beteta, erantzunak talde handian alderatu eta zuzenduko ditugu.

ERANTZUNAK:

Pertsonaia ezkutua: Mikel Laboa

Lau baietz:

1:

Gu AEK-koak **gara**,
lanean egun ta **gaba**,
salba dezagun denon artean
geurea dugun **euskara**.

Laino guztien **azpitik**,
ia ez dakigu **noiztik**,
gure hizkuntza aurrera
doa eraso denen **gaintik!**

2: 6. KORRIKAri. Kantak *Gu AEK-koak gara* du izena.

3: c.

4: b. *Big Beñat* kanta egin zuen.

“KORRIKAREN KANTA OSATZEN” JOKOA

Joko honetan, “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa erabiliko dugu ordenagailuaren pantailan, telebistarenean edo beste edonon jarrita, ikasle guztiek aldi berean ikus dezaten.

Jokoaren helburua

- “KLIKA KORRIKA 2019” kanta bederatzi ataletan banatu dugu. Atal bakoitzean, kantaren estrofa bat dago, eta jokoaren helburua da atalak osatzeko falta diren hitz guztiak jarraian gogoratzea. Ariketa honetan, entzumena landuko dugu. Hitzak soinuen arabera kokatu beharko dituzte, ez baitugu espero maila honetan hitzak ulertzea, eta hala azalduko diegu.

Jokoaren arauak

- Ikasleek binaka jokatuko dute. Eskolan ikasle gutxi baditugu, bakarka joka dezakegu. Jokoa irakasleak bideratuko du.
- “KORRIKAREN kanta osatzen” ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu.



- “Gelditu” adierazten duen ikurra agertzen den bakoitzean, bideoa etengo dugu.
- Ikasleei hutsuneak betetzeko denbora utziko diegu: idatz ditzatela berbak paper batean.
- Asmatu duten jakiteko, bideoa berriz abiatuko dugu.
- Prozedura behin eta berriro errepikatuko dugu, kantaren 9 atalak osatu arte.

